

Ordizian, **2016ko ekainaren 30**ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M <sup>a</sup> .Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
-----------------------------	-------------------

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

**EGUNEKO GAI ORDENA**

**EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1- 2016ko maiatzaren 26an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2- 2016ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 3.- 2016ko maiatzari dagozkion Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 4.- 289,534 eta 621 zenbakidun Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 5.- EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Agur eta ohore Mohamed Abelaziz" lema duena.

- 6.- EH-Bilduk aurkeztutako proposamena Aniztasun eta Identitate sexualaren aldeko Adierazpenera atxikitzeko.
- 7.- EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Mandelaren arauak" lemarekin.
- 8.- 2015eko Kontu Orokorrak onartzea.
- 9.- Ondare Higiezin Zergan zerga-tasa berriak onartzea 2017an aplikatzeko.
- 10.- Eraikuntza eta Obren zergan hobaria Oianguren Ikastetxeari estalkia konponketan.
- 11.- Udalsarea 21ean atxikitzeko akordioa berritzea.
- 12.- GARBIGUNE eremuari dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa.

#### **GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:**

- .- Gobernu Batzarrean adostutako proposamen politikoa errefuxiatuei buruzkoa.
- .- Udaltzainen taldeak bidalitako kexa-idatziaren eztabaida.
- .- Edukiontzia erosteko diru-laguntzei buruzko galdera.
- .- Zenbait dokumentazio eskaera. (2.Merkataritza plana, N.1ean plaka akustikoak, TAO agentearen kontratatzea, Trafiko Mahaiaren Eraketa)

#### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19:00**

**AMAIERA ORDUA: 20,10**



**Osoko bilkura hasi aurretik, Alkate jaunak Istanbulleko atentatuko biktimen alde minutu bateko isilunea egitea proposatu du osoko bilkura egin baino lehen.**

**Hori egin da eta bertaratutako guztiak zutik jarri dira.**

Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilerari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

**1.-2016ko maiatzaren 26ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2016ko maiatzaren 26ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Ondorengo zuzenketa egitea eskatu du:

Gaztelerazko bertsioan, 16. orrialdean, sexuen arteko berdintasunaren alde lan egiteko udalerrien arteko erlaziorako espazioa dela esaten duenean, genero berdintasuna esan behar du.

Bozketa

Zuzenketa egin ostean bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz, Alkate jaunak akta onartutzat eman du zehaztutako aldaketak egin eta gero.**



**2.- 2016ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkurako akta onartzea.**

**2016ko maiatzaren 30ean ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 4 (EAJ/PNV 3, Ordiziako EH Bildu 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 8 (EAJ/PNV 2 Arantxa Fernandez eta Bittor Bolinaga, Ordiziako EH Bildu 3 Iزارo Intsausti, Adur Ezenarro, Jon Ander Caballero, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1, abstenitu egin dira ez zirelako bileran izan.)

**Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.**



### **3.- 2016ko maiatzari dagozkion Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

*Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.*



### **4.- 289, 534 eta 621 zenbakidun Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Izaro and.

621 zenbakidun dekretuaz galdetu du.

Kontuhartzaile jn.

Informazioa emango diola erantzun dio ez dakielako zehazki erantzuna.

Izaro and.

Kreditu gehigarrien espedienteko gastuen zerrenda eskatu du.

Kontuhartzaile jn.

Pasatuko diola esan dio.

**Osoko bilkura jakinaren gainean dago.**



## **5.- EHBilduk aurkeztutako proposamena "Agur eta ohore Mohamed Abdelaziz" lema duena.**

### Proposamena

Ordiziako EH Bilduk honako proposamena aurkezten du.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2016ko maiatzaren 21an, Mohamed Abdelaziz, Fronte Polisarioko Idazkari Nagusia eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lehendakaria hil egin zen.

Ordiziako Udalak Saharako herriaren eta bere eskubideen aldeko konpromisoa berretsi eta Mohamed Abdelazizen borroka eredugarria azpimarratu nahi ditu.

Mohamed Abdelaziz, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lehendakari eta Fronte Polisarioko Idazkari nagusiak 1968an ekin zion bere herriaren askatasunaren aldeko borrokari eta 1973 Fronte Polisarioko sortzean parte hartu zuen. 1978tik Fronteko Idazkari Nagusia izan da eta Saharako herriaren eskubideen eta Sahararen autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka eredugarriaren adierazle nagusi izan dugu.

### **ESKAERA**

**Ordiziako Udalbatzari eskatzen zaio:**

- 1. Bere herriaren eskubideen aldeko borrokalari nekaezinak utzi gaituen honetan Ordiziako Udalak bere doluminak adieraztea Saharako herriari eta Fronte Polisario osoari.**
- 2. Badirela 40 urte Estatu espainiarrak garatu ez zuen deskolonizazio prozesua bururaino eramateko ordua dela eta erreferendum bat egitea ahalbidetzeko lan egiteko eskaera luzatzea NBE erakundeari eta nazioarteko komunitateari.**

**Sahara hurra! Sahara Libre!**

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Proposamena irakurri du euskaraz.

Alkate in.

Bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela jakinarazi du.

Sukia and.

Mozioa babestuko du eta Saharar herriari bere babes osoa adierazi dio.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



## **6.- EH-Bilduk aurkeztutako proposamena Aniztasun eta Identitate sexualaren aldeko Adierazpena atxikitzeko.**

### Proposamena

#### **ANIZTASUN ETA IDENTITATE SEXUALEN ALDEKO ADIERAZPENA**

Ekainaren 28an mundu osoko kaleak, Euskal Herrikoak ere bai, kolorez eta aldarrikapenez jantziko dira LGBTBI kolektiboaren hamarkadako borroka nabarmentzeko. 2016. urtean 47 urte beteko dira Stonewalleko (New York) matxinadatik. Egun hau askatasun sexualaren mugimenduaren baitan berezia da oso, erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, trans eta intersexualen aurka ezarritako errepresioaren kontra egiteko mugarri izan baitzen.

Orduko mobilizazioek sexu askatasunaren aldeko antolakuntza bultzatu eta lanerako indarra eman bazuten ere, 47 urte geroago diskriminazio egoerak ez dira amaitu. Are gehiago, zenbait kasutan bestelako diskriminazio egoerekin batu dira eta baztertze egoera larrietan utzi ditu lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualak. Kapitalismoak eragiten dituen diskriminazioei beraz, eredu matxista eta patriarkalaren bazterketak gehitu zaizkie, pertsona guztien, eta bereziki pertsona LGBTBlen ongizatea kinka larrian jarritz.

Besteak beste, honelako kasuak bizi ditugu egun Euskal Herrian: inmigrante ez heterosexualak; pobrezian bizi diren emakume lesbianak; beltzak eta transexualak direnak; familia nuklearrean oinarritutako bizi ereduarekin bat egiten ez duten pertsonak; generorik gabeko identitateak dituztenak; etab. Arrazoi ezberdinengatik dira diskriminatuak pertsona hauek: arrazoi sozioekonomikoengatik eta baita genero arrazoiengatik ere.

Izan ere, Hego Euskal Herrian oraindik ere homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira: kaleko eraso fisiko zein ahozkoak, euskaltzaindiaren generoaren araberrako izenen katalogazioa, familia eredu bakarraren inposizioa eskubideak bermatzeko, liburu eta eduki multimedia sexista, etab.

Egoera internazionalari so eginda, gero eta herrialde gehiago dira sexu askatasunaren aurka mota ezberdinetako legediak onartu dituztenak, hau giza eskubideen kontrakoa bada ere.

Azkenengo homofobia erasorik bortitzena pasa den igandean bizi izan genuen Orlandon. Erasotzaile bakarra izan bada ere, gizarte eredu oso baten arazoa da honako kasua, homofobia erasoak esparru guztietan bizi bait ditugu. Izan ere, Orlandon ia 50 hildako izan dira, baina nazioartean egunerokoan bizi ditugu eraso homofoboak; gizarteko esparru ezberdinetatik zein legedia kriminalizatzaileetatik.

Horrengatik, elkartasuna ardatz izango duen kontzientzia aldarrikatzen dugu, jarrerak aldarazi eta LGBT kolektiboarekiko aurreiritziak, fobiak eta gorrotoak desagerraraziko dituen, alor guztietan ezinbestekoak diren lege eta gizarte aldaketak eginda: hezkuntzan, osasungintzan, komunikabideetan edota herritar askatasunetan. Horretarako ezinbestekoa izango da ahalduntze politikak bultzatzeta gizarteko sektore ezberdinetan.

Guzti honengatik, politika instituzionalak pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dira, oinarrizko askatasun printzipioaren baitan.

Era berean, hauen aurkako eraso, jazarpen edota errepresio oro gaitzetsi eta salatzen jarraian izan behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezen, bere eskura dituen baliabide guztiak erabili beharko lituzke, prebentziorako, detekziorako, asistentziorako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko.

Ordiziako EH Bilduk pertsona askeek osatutako herri askea eraikitze bidean, Euskal Herriko herri eta hiri ezberdinetan antolatutako mobilizazioekin bat egitera deitzen ditu ordiziarak, eta udalbatzari eskatzen dio, Ordiziako Udalaren izenean ere, adierazpen hau onartu eta deialdi horretara batu dadila. Era berean, Ordiziako Udalari eskatzen dio aurreko urteetan egin moduan, ekainaren 28an Ordiziako udaletxeko balkoian LGTBI komunitatearen harrotasun eguna dela gogoratzen duten ikurrak jar ditzala.

#### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

## Alkate jn.

Ekainaren 28a aniztasuna aldarrikatzeko eguna izan dela adierazi du. Aniztasuna babesteko osoko bilkuren aretoko balkoian ikurra ipini zen.

## Ezenarro jauna

Mozioa irakurri du euskaraz.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



## **7.- EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Mandelaren arauak" lemarekin.**

### Proposamena

Ordiziako EH Bilduk honako proposamena aurkezten du, Mandela arauen inguruan.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2015eko abenduaren 17an Presoak Tratatzeko Oinarrizko Arauak onetsi zituen, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, izen sinboliko bat emanez: Mandela Arauak. Horrela, arautegi hau bultzatu duten Estatuak omenaldia egin nahi diote 27 urtez kartzelaraturako preso politikoari eta ostean Hegoafrikako Presidentea izan zen Nelson Mandelari, giza eskubideen alde, berdintasuna, demokrazia eta bakearen kulturaren aldeko bere ondarea gorai patuz.

Mandela Arauak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak aintzat hartzen ditu eta kartzela politika ezartzeko orduan, presoen giza eskubideak babesteko norabidean, eragin eta balio handia dute. Azpimarratzekoa da Mandela Arauek, Tortura eta bestelako tratatu edo zigor anker, gizagabe edo iraingarrien Hitzarmena hartzen dutela oinarritzat.

Izaera unibertsala eta indar inperatibo eta loteslea izatea helburua duten 122 arau hauek, ondoko oinarrizko printzipioa ezartzen dute: "preso guztiak, euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioagatik merezi duten tratamendua jasako dute". Horren haritik, "kartzela erregimena bideratua dago kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tartea minimora gutxitzera" adierazten du, horretarako kartzelako baldintzak duinak izan daitezzen katalogo bat agertuz.



Mandela Arauek, besteak beste, presoek osasun tratamendu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea ere aldarrikatzen dute. Zehazki 59.garren arauak zera adierazten du: "posible den neurrian, presoak bere etxetik edo bergizarteratze lekutik gertu egongo dira". NNBBen arau hauen 44garrenak agintzen duenez, isolamendua, "soilik salbuespeneko kasuetan ezarriko da, azken errekurtsio gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta errebisio independente baten menpe".

Euskal presoek esperientzian ez da horrela suertatzen: isolamendua sistematikoa bihurtzen da, zigor ohiko eta arrunta da, aplikazio arbitrarioa duena. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen ditu. Azken egun hauetan horren testigantza zuzena jasotzen ari gara: muturreko isolamendu kasuen zerrenda luzea ezagutzen dugu, Arantza Zulueta, Harriet Iragi, Juan Ramon Carasatorre, Aritz Arginzoniz, Juan Carlos Besance, Bittor Franco, Xabier Garcia Gaztelu, Fernando Garcia Jodra, Sebas Lasa, Iker Lima, Angel Lopez Anta, Aitzol Mautua, Iker Olabarrieta, Patxi Ruiz, Nerea Bengoa, Irantzu Gallastegi, Gurutz Agirresarobe, Iker Arakama, Rufino Arriaga, Asier Arzallus, Juan Mari Etxebarri, Garikoitz Etxeberria, Jesus Goikoetxea, Roberto Lebrero, Inigo Vallejo... zerrenda luzea da. Beste aldetik, ezaguna da duela aste batzuk Fresneseko espetxean isolamenduagatik piztutako gatazka eta tentsioa, horren ondorioz gose greba bateko protesta eragin duena.

Nazio Batuek gonbidapen bat luzatzen dute: Nelson Mandelaren Nazioarteko Eguna, uztailak 18ro ospatzen dena, Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna izan dadin, gartzelaratze baldintza duinak bultzatzeko eta presoak ere gizartearen parte direla agerian uzteko.

## **ESKAERA**

**Ordiziako Udalbatzari ondoko puntu hauek onartzeko eskatzen zaio:**

- 1. Udal honek bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatze Oinarrizko Mandela Arauekin.**
- 2. Udal honek, Euskal Presoei Mandela Arauak aplika dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haritik, dispertsioarekin amaituz.**
- 3. Udal honek, Mandela Arauak oinarrizkat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontuta izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du udal honek.**
- 4. Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaratze baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz.**

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Eguren jn.

Esan du ez duela testua osorik irakurriko baina mozioaren alderdi garrantzitsuenak laburtu ditu eta giltzapetutakoen eskubideei buruzko arauak azaldu ditu.

Mozioan onartzeko jasotzen diren 4 puntuak irakurri ditu.

#### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



### **8.- 2015eko Kontu Orokorrak onartzea.**

#### Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2015eko Aurrekontuaren Kontu Orokorriari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2016ko maiatzaren 13ko GAOko 90. alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udalbatzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

**2015eko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu.**

#### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Kontu Orokorrak onartzeko egin diren tramiteen berri eman du.

GAOn argitaratu da erakusketa publikorako eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Kontuen Epaitegira bidali dira agiriak eta akordio hau bidaltzea geratuko litzateke bakarrik.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



### **8.- Ondare Higiezin Zergan zerga-tasa berriak onartzea 2017an aplikatzeko.**

#### Proposamena

Apirilaren 20an jakinarazi zitzaigun Balio Katastralaren berritzerako Ponentziaren zirriborroan zeuden balio berriak.

Ponentzia aztertu ondoren eta Udaleko Arkitektoen txostena ikusi eta gero Alkateak, beste talde politikoen oneritziarekin, alegazioak aurkeztu zituen.

Alegazioak onartu eta gero Ponentziaren balio berriak iritsi zaizkigu eta Kontuhartzaileak txostena egin du finkatzeko zeintzuk izan beharko diren aplikatuko diren zerga tipoak, 2016ko Zerga bilketa berdina bermatzeko.

Plenoko Gaien Batzordea, 2016ko ekainaren 23an egindako bileran, proposatutako tipo berriei oneritzia eman die eta erabaki du Udalbatzari ondoko,

#### AKORDIO PROPOSAMENA

**Ondasun Higiezin gaineko zergan, 2017an aplikatzeko ondoko zerga tipoak onartzea:**

- **Bizitegi guneeetan**            % 0,219
- **Industri guneeetan**            % 0,600
- **Landa lurretan**                % 0,985

### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Foru Aldundiak txostena nola egin duen azaldu du eta Udalak aurkeztutako alegazioak, horietako batzuk kontuan izan dira.

2017 ekitaldian OHZn zuzenduko diren zerga-tasak onartzen dira une honetan.

#### Sukia and.

Adierazi du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean adostu zutela Foru Aldundiari kontsulta egingo zitzaiola zerga-tasa onartzeko unea orain den zehazteko. Bidalitako proposamena ikusita, unea orain dela ondorioztatzen du.

Ez dute proposamenaren alde bozkatuko txostena onartzeko unea orain dela uste dutelako, baina zerga-tasen onarpena atzeratzearen aldekoak dira.

#### Kontuhartzaile jn.

Zerga-tasak orain onartzeak eta ezartzeak dituen abantailak azaldu ditu.

#### Ezenarro jauna

Bere ustez argiagoa da herritarrei jakinaraztea etxebizitzaren balio katastrala eta etxebizitzari aplikatuko zaion zerga-tasa.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



## **10.- Eraikuntza eta Obren zergan hobaria Oianguren Ikastetxeari estalkia konponketan.**

### Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri eman da. Horrek aurreikusten du interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta

obrei zergaren kuotan % 95eko hobaria ematea, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Ordiziako IES OIANGUREN BHI ikastetxerako Estalkia eraberritzeagatik aipatutako zergaren hobari eskariaren berri ematen da.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua arabera, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobaria aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2016KO ekainaren 22ko data daraman Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, eskatutako hobariaren aldeko irizpena eman du, Herri Onurako erakundea delako eta hezkuntzarekin lotutako zentroa dela kontuan izanik, eta % 95% eko hobaria proposatu du.

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Egingo diren obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren % 95ko hobaria egin dakien onartzea.**

#### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Esan du erakundearen ohiko jokaera dela EIOZen hobaria ematea interes sozialeko zenbait eremutan eta batez ere Hezkuntzan.

#### Maiza and.

Alderantziz ere gauza bera gertatzen den galdetu du, hau da, laguntza eta babes neurri hauek elkarrengakoak diren.

Ez du oso ondo ulertzen Eusko Jaurlaritza eraikinaren jabe izanik EIOZrako diru-laguntza ematea. Alderantziz, gauza bera gertatuko litzateke?

Oianguren Institutua Bigarren Hezkuntzako zentroa dela adierazi du eta mantentze-lanak Eusko Jaurlaritzari dagozkio.

#### Kontuhartzaile jn.

Adierazi du Legeak ezartzen dituela salbuespen kasuak eta Udala beti aurrerago doala. Ez dugu ia salbuespena den %95eko hobari batera iritsi behar beti. Eta aztertzen ari garen kasua ez dago salbuespenetan jasota.

## Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



### 11.- Udalsarea 21ean atxikitzeko akordioa berritzea.

#### Proposamena

#### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOAREN ATXIKIMENDUA; "UDALSAREA 21 JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA"**

ORDIZIAKO Udalak jasangarritasun prozesuen aldeko konpromisoa azaldu du, Udala Tokiko Agenda 21 ezarriz.

Hala, tokiko konpromisoaren bidez jasangarritasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Horrenbestez, Ordiziako Udalak, 2016ko ekainaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasunaren aldeko «Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea» Konpromisoa berritzeko Akordioa, 2016ko apirilaren 27an onartutakoa, berrestea HITZARTU du.

Aurrez adierazitakoarekin bat, Ordiziako Udalak **ADIERAZTEN DU:**

"2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeko Akordioa "Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea" dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak".

eta izendatzen du:

- Jose Miguel Santamaria Ezeiza, Alkatea, (jmsantamaria@ordizia.eus) arduradun politikoa eta Angélica Moreno Heras (amoreno@ordizia.eus), ordezkari moduan.
- Rosa Urkia Zapirain (rosa@laiacoop.net) arduradun teknikoa.

### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



## **12.- GARBIGUNE eremuari dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa.**

### Proposamena

2012ko uztailaren 18ko osoko bilkuran AURRERAKIN agiria nahiz GARBIGUNE Eremuaren Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa bideratzen hastea onartu zen.

2012ko abuztuaren 17ko 157 zenbakidun GAO n iragarkia argitaratu zen eta jendaurrean ikusgai egon zen bi hilabeteko epean. Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Une honetan zehaztutako Eremuari dagokion Arau Subsidiarioetako aldaketaren agiria hasierako izaeraz onartzea egokitzen da.

Udal Arkitektoak 2016ko ekainaren 16an egindako txostena eta 2016ko ekainaren 20ko Obra eta Hirigintza Delegazioak emandako aldeko irizpena ikusi da.

2016ko ekainaren 22ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpena ikusi da.

### **AKORDIO PROPOSAMENA**

**1.- GARBIGUNE HIE berria sortzeko eta SUHILTZAILE PARKEA 27 HIE aldatzeko udal plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa hasierako izaeraz onartzea.**

**2.- Espedientea jendaurrera zabaltzea GAO n, Udaleko iragarki-oholean eta lurralde historikoan zabalpen handiena duen egunkari batean iragarkia jarritz, azkeneko argitalpena kontuan izanda hilabeteko epean. Epe horretan edozein interesdunek eskura izango du espedientea alegazioak egin ahal izateko. Horrekin batera mugakide diren udalerriei ere honen berri emango zaie.**

### **3.- Foru Aldundiko Errepide Sailera eta URA UR AGENTZIAra bidaltzea dagozkien txostenak egin ditzaten.**

#### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

#### Alkate jn.

GARBIGUNEaren instalazioa legeztatzeko prozedura dela jakinarazi du.

Arau Subsidiarioen xedapen-aldaketaren hasierako onarpena da, ondoren erakusketa publikoan ipiniko da, mugakide diren udalerriei jakinaraziko zaie eta txostena eskatu behar zaien erakundeei bidaliko zaie.

#### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



### 8.- Galde-eskeak.

#### Alkate jn.

Jakinarazi du Osoko Bilkura honetan aztertzeko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean EH-BILDUK errefuxiatuei buruzko mozio bat proposatu zuela eta Gobernu Batzordean adostu zela alderdi politikoen desberdinen artean eta Bozeramaile Batzordeak adierazpen hori jakitera eman duela.

.....

#### Eguren jn.

Adierazi du bere alderdiari eta gainerako alderdi politikoei udaltzainen taldeak bidalitako kexa-idatziaren kopia bat jaso dutela eta Alkate jaunari azalpenak eskatu dizkio.

Esan du Udaltzaingoak idatzian adierazi duela ez dutela inongo bileretan parte hartu eta ez dituztela kontuan izan jaietarako barrak eta ferien kokaleku aldaketa erabakitzeko.

#### Alkate jn.

Erantzun dio esanez aurreko urteko festak baloratzeko bilera pare bat egin dela eta zenbait zerbitzuek (Kulturak, zerbitzuak, jaiak...) parte hartu dutela eta berak ere bai.



Horrekin batera bileraren bat egin da gazteekin eta bertan parte hartu dute Arantxa Fernandezek, Jesus Mari Larizek eta Iñaki Hidalgok. Bilera horien helburua izan da pasa den urtean jaietan izan ziren arazoen berri ematea gazteei eta aurtengo jaietarako arazo horiek konpontzeko beharra adieraztea. Bilera horietan ez dute parte hartu ez arkitekto teknikoak, ez udaltzainburuak ezta alkateak berak ere.

Gazte batzuekin “petit comité” moduan bilerak egitea zen asmoa, eta gero bilera horien berri ematea.

#### Iturrioz jauna

Esan du aurrekontuak onartu zirenean Ezenarro jaunak adierazi zuela beharbada komeni zela barraken kokalekua aldatzea gastuak murrizteko.

Ezenarro jaunak erantzun dio esanez gaiaz oso azaletik hitz egin zela eta gaia aztertzeke geratu zela. Baina bere ustez aldaketa hau inplikaturako udal teknikari eta langileekin batera aztertu behar da.

Zinegotziek ere ez dute parte hartu bileretan.

#### Alkate jn.

Erantzun du esanez idatziaren berri izan bezain laister udaltzainburuarekin bilera egin zuela eta honek badakiela Alkatezako ateak irekita daudela edozein arazori buruz hitz egiteko.

#### Eguren jn.

Aurreko legealdian barraka eta ferietako kokalekua aldatzea aztertu zela esan du eta baita zezen plazarena aldatzea ere baina ez zen aldaketarik egin teknikariek zehaztutako arazo teknikoengatik.

Horrekin batera, aipatu du, pasa den urtean, Matutinako gauean egindako arau-hauste batzuenatik zenbait gazteri ipinitako isunak kendu zituela Alkateak.

#### Alkate jn.

Oker dabilela erantzun dio, berak ez zuela kendu eta gainera ezin duela isun bat kendu ez dagokiolako eskumen hori. Eusko Jaurlaritzari dagokio eskumen hori. Berak Segurtasun Sailburuordearekin hitz egin zuela esan du eta gazteei aholkatu ziela zigor espediente bati hasiera eman zitzaiola epe barruan alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak ikusita zigor espedienteak artxibatu egin ziren.

#### Eguren jn.

Esan du neurriarekin sor daitezkeen trafiko arazoak aipatzen direla idatzian. Merkatariak kaltetuko ditu. Zezen plaza ipintzeko proposatzen den kokalekuan segurtasun-arazoak hautematen dira.

Inplikaturako agenteak kontuan ez izana kritikatu du.

Alkate jn.

Esan du arraroa iruditzen zaiola duela 4 edo 5 urte arazoak hautematea eta orain teknikariek zezen plazaren instalazioarekin arazorik ez ikustea.

Sukia and.

Herritar batzuek neurriaz kexatzeko kalean gelditu dutela adierazi du.

Alkate jn.

Oraindik inongo erabakirik ez dela hartu esanez erantzun dio.

Sukia Andrea:

Aipatu du talde politiko guztietako ordezkariak joan behar zutela bilera batera eta gero bertan behera geratu zela.

Eguren jn.

Udaltzaingoa hartutako erabakiarekin ados ez dagoela azpimarratu du.

Alderdi politiko moduan Festetako Lan Mahaian parte hartzeko deialdia bidaliko zitzaiela uste zuten. Udaltzainen taldeari bere babes osoa adierazi dio.

.....

Sukia Andrea:

Maiatzaren 12an GAO n edukiontzia erosteko diru-laguntzen deialdia atera zela jakinarazi du. Eskatu den galdetu du.

Alkate jn.

Begiratu zutela erantzun dio baina edukiontzi grisa soilik laguntzen dute diruz eta edukiontzi marroia itxeko mekanismoa. Ez du kopurua kalkulatu baina 40.000 euro inguru ematea espero du.

.....

Ezenarro jauna

Gai zehatz batzuen inguruko informazioa nahi du eta aktan jasotzeko eskaera egin du:

- 2. Merkataritza Plana. Gai honi buruz Alkateak erantzun dio esanez Gobernu Batzordean talde politiko guztiei informazioa emango zaiela.
- N-1ean zarataren aurkako plaka akustikoak.

- TAO agentea kontratatzeko prozesua.

- Trafiko Mahaiaren Eraketa.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.